

JOSE FELIX VERDES ELORRIAGA

(1905 - 1980)

Ba dira euskararen aldé isilean lan egin dutenak eta hauetariko bat, 1980.eko Abuztuaren 27an hil zaigun Jose Felix Verdes Elorriaga da. Emeterio Verdes Atxirikak Bilbon sortu zuen moldiztegiaren jarraitzaile izan zen Jose Felix hil arte. Eta moldiztegia desagertua izan arren, hor geratzen da lekuko Bilbo Zaharreko Liburudenda.

Euskarari eta euskal kulturari buruzko liburuak pilaka argitara eman zituzten Verdestarrek. Denak hemen aipatu ezinik, euskarazkoak bakarrik zerrendatuko ditut. Gaztelarazkoen artean, aipagarrienak, Kizkitzaren: *La Nación Vasca* bigarren argitalpena (1931); (lehenengoa 1918an Grijelmok egin zuen). Estellako Bernardino-ren: *Historia Vasca*, hau ere bigarren argitalpena (1931), (lehenengoa Buenos Airesen egin zuen Tudurik 1928an). Eta Jose Antonio Agirrereren: *Entre la libertad y la revolución* (1935).

AGIRRE, JOSE MARIA ("Lizardi"): *Biotz begietan* (1932).

AGIRRE'TAR TOMA ("Barrensoero"): *Gazigozoak* (1933).

ALTUNA'TAR JOSEBA: *Wilde'tar Oskar. Ipuñak* (1927). *Grimm anayak. Ipuñak* (1929).

OLABIDE'TAR ERRAIMUN: *Itun Berria* (1931).

ORIXE: *El Lazarillo de Tormes. Tormes-ko Itsu-mutila* (1929). *Mistral-en Mireio euskeraz* (1930).

SOTA ABURTO, IMANOL: *Negarrez igaro zan atsua* (1933). *Urrentxindorra* (1934). *Libe* (1934). *Buruzagijak* (1935) *Gozemin* (1935).

URKIAGA, ESTEBAN ("Lauaxeta"): *Bide barrijak* (1931). *Arrats beran* (1935).

ZAMARRIPA, Pablo: gramatikari honen lehen liburua: *El bascuence facilitado. Gramática del euskera bizkaino. Cuaderno Primero. Declinaciones*, Gasteizen argitara eman zuen 1905an Barrutiak. Bigarren argitalpena, Bilbon egin zuen Jose Astuik 1909an. Gero, *Manual del Bascófilo*, liburu irakurgarria benetan, Lersundik inprimatu zuen Bilbon. Gaiak ugari zituen Zamarripak orduan bere *Gramatika* osatzeko eta 1915an Lersundik egin zuen lehen argitalpena; gero etorriko dira Gaubekak egindako hiru argitalpenak (1929, 1931, 1933) eta eranskin gisa Gaubekak berak argitara emandako: *Conjugaciones guipuzcoa-*

nas (1929). Gramatikaren seigarren argitalpena Dotxaok egin zuen Bilbon (1947), eta zazpigarrena, gure Verdesek (1955).

Bi urte geroago (1957), Zamarrriparen *Vocabulario Vasco-Castellano* inprimatuko du Verdesek, lehen Gaubekak (1930, 1933) eta Dotxaok (1947) egindakoak orrialdez gehituz. Baina gramatikako lanetatik aparte, olerkiak ere idatzi zituen Zamarrripak eta 1927an argitaratu zituen Verdesek: *Gora begira. Olerki goi-usañoak* izenburupean.

Beste liburuxka eta paper asko ere inprimatu ditu Verdesek, moldiztegia euskararen zerbitzurako aurkeztuz. Eta hori zen Jose Felixek harrotasunez beterik agertzen zuena. Garai neketsuan euskararen alde hainbat lan egin duen gizon honek har beza auskaldunen esker ona.

Jose Antonio Arana Martija